



JAKINARAZPENA, 2024ko OTSAILAREN 22koa, IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARIARENA, 2023-24 IKASTURTEKO LEKUALDATZE-LEHIAKETAKO BEHIN BETIKO LANPOSTU HUTSAK ARGITARATU AURRETIK IKASTETXEETAKO ZUZENDARITZEI ENTZUNALDIA IREKITZEARI BURUZKOA.

2023ko abenduaren 22an, 2023-24 ikasturteko lekualdatze-lehiaketarako lanpostu hutsen proposamena argitaratu zen Hezkuntza Sailaren webgunean (Langileak/Lanpostuak - Irakasleak/Lekualdatze-lehiaketak), eta alegazioak aurkezteko epea ireki zen.

Proposamen hori egiturako lanpostu hutsak (eskola-orduetan oinarritutakoak) eskaintzeko ohiko irizpideak kontuan hartuta egin zen, jarraitutasun-ikuspegiarekin.

Alegazioak aztertzean, Sailak irizpide horiek osatzeko beharra ikusi zuen, langileak egonkortzeko prozesuetatik eratorritako beharrei erantzuteko behar adina lanpostu huts edukitzeko aginduarekin. Horren helburua, dakigunez, ikastetxe guztietako bitartekotasun-tasa murriztea da.

Irakaskuntzako espezialitate batzuetan lanpostu hutsen proposamena ez zen nahikoa egonkortsu berri diren langile guztiei behin betiko lanpostu bat esleitzeitzeko, eta aurkeztutako alegazioak ikuspegi bereziarekin aztertu ziren. Aurreko urteetan ez bezala:

- Alde batetik, Saila murriztaileagoa izan da lanpostu hutsak estaltzeko eskarien aurrean.
- Era berean, abegikorragoa izan da lanpostu huts gehiago eskaintzeko eskaerei dagokienez; bereziki zuzendaritzetatik zetozenen eta orain dela gutxi egonkortsu diren eta 2023-24 ikasturtean ikastetxeari esleitu zaizkion irakasleak finkatzeko itzaropenei buruzkoak zirenean.

Horretarako, oro har, irizpide hauek erabili dira:

- Lehentasunez, hasierako proposamenean ofizioz estalita agertzen ziren egiturazko plazak (hau da, zuzeneko irakaskuntzakoak) erabiltzea.
- Plaza horiek nahikoak ez badira, hertsiki egiturazkoak ez diren plazak erabiltzea (hau da, irakaskuntzakoak ez diren beste zeregin batzuetara bideratutakoak), bi faktore kontuan hartuta:

1. Egonkortutako langileek 2023-24 aldian betetako plazak, egungo ikastetxean egonkortutako irakasleen egonaldia ez oztopatzen saiatuz.
2. Plaza-kopuru osoaren eta egiturazkotzat jotzen diren plaza-kopuruaren arteko aldea, lehiaketarako plaza gehiago gaituz marjina handiena zuten ikastetxeetan.

Horregatik guztiagatik, egokitzen jo da, 2023-24 ikasturterako lanpostu hutsen behin betiko zerrenda argitaratu aurretik, izapide bat egitea ikastetxeetako zuzendaritzek Sailak gai horri buruz egindako aurreikuspena berrikusteko eta, hala badagokio, ezinbestekotzat jotzen duten edozein aldaketa proposatzeko.

2023-24 ikasturteko lekualdatze-lehiaketarako lanpostu hutsen behin betiko zerrenda Hezkuntza Sailaren webgunean dago ikusgai (Langileak/Lanpostuak - Irakasleak/Lekualdatze-lehiaketak).

Ikastetxeetako zuzendariak **2024ko otsailaren 22tik otsailaren 29ra** bitartean aurkeztu ahal izango dituzte aldaketa-aurre-proposamenak:

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 83 40 – Fax 945 01 83 36 – e-mail huiuscsc@euskadi.eus





Arabán, estekaren bidez sartzen den formularioaren bidez:

[ARABAKO FORMULARIOAREN ESTEKA](#)

Bizkaian, estekaren bidez sartzen den formularioaren bidez:

[BIZKAIKO FORMULARIOAREN ESTEKA](#)

Gipuzkoan, telefono edo posta elektronikoa hauen bidez:

ABALTZISKETAtik Donostiara (CEIP IGELDO HLHI) barne:

Yolanda Méndez, tf. 943-02.28.55// helbide elektronikoa huisg015@euskadi.eus

DONOSTIA

atik (IKAS-BIDE HLHI) Irunera (URUMEA HLHI) barne:

Begoña Martínez, tf. 943-02.29.34// helbide elektronikoa: huisgrpl@euskadi.eus

ITASONDO

tik ZUMAIAra (biak barne):

Ana Centeno, tf. 943-02.28.54// am-centeno@euskadi.eus helbide elektronikoa

HHI (CEPA-Lehen Hezkuntza), posta elektronikoa honen bidez:

mc-fuerte@euskadi.eus

Lanpostu hutsen eskaintza handitzeko aldaketa-proposamenei erantzun dakieke, baina soilik ikastetxeko zuzendaritzaren abala jasota dagoenean eta plazak jarraitutasun-bermea duela egiaztatzen denean.

Oro har, ezin izango da lanpostu hutsen eskaintza murrizteko aldaketa-proposamenik onartu, salbu eta egiaztatzen bada horietako bat nahitaez ezabatuko dela 2024-25 ikasturtean. Aukera hori egoera gutxi batzuetara murriztu egiten da: baldin eta gaur egun jakiten bada 2024-25 ikasturtean ikastetxeko zuzendaria ez dela izango 2023-24 ikasturtean lanpostua betetzen zuenaren espezialitate berekoa, eta behin betiko lanpostu hutsen zerrendaren aurreikuspenean handitu egin bada zuzendaritza utziko duenaren espezialitateko plazen kopurua, egiturazko lanpostuen gehieneko kopuruaren atalasearen gainetik.

Era berean, ezin izango da lanpostu hutsak murrizteko proposamenik onartu honako helburu hauetarako:

1. Ikastetxean bitarteko irakasleen egonkortasuna bermatzea; edo
2. Egonkortu berri diren langileentzako plazak izatea, baldin eta ikastetxeko zuzendaritzak ez badu bermatzen datorren ikasturtean ere jarraituko dutela.

Lehen esan dugun bezala, prozesu horren ondoriozko proposamen berriak plantilla finkatzeko eta ikastetxe guztien bitartekotasuna murrizteko balioko du.

Zuen pazientzia eta lankidetzak eskertuz, adeitasunez,

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoa datan.

Eugenio Jimenez Ibañez
IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARIA



GAKOAK

LANPOSTU HUTSEN eta ERRESULTEN ATXIKIPENA - GAKOAK RETENCIÓN de VACANTES y RESULTAS - CLAVES

Lanpostu bakoitza atxikitzearen arrazoia azaltzeko erabiltzen diren gakoen esanahia:
Significado de las diferentes claves utilizadas para explicar la razón por la que se ha retenido cada una de las plazas:

A	Zuzendaritza taldearentzako erreserba / Reserva para equipo directivo
C	Ibiltariak edota partekatutako lanpostuak izatea / Itinerantes o plazas compartidas
E	Espezialitatea aldatzea / Cambio especialidad
G	Bat egiteko/batera biltzeko egotea / Pendientes de fusión/integración
H	Ordu gutxi izatea / Pocas horas
K	Ikastetxea ixtea / Cierre del centro
O	Lanpostuaren profilaren aldatzea / Cambio del perfil del puesto
P	Hizkuntz eskakizunaren aldatzea / Cambio del perfil lingüístico
S	Aparteko lanpostua / Puesto singular
T	Finkatu gabe / Sin consolidar
U	Taldeen murrizketaren aurreikuspena / Previsión de reducción de grupos

EGONKORTZE-PROZESURAKO GAKOAK/CLAVES POR EL PROCESO DE ESTABILIZACIÓN

<input checked="" type="checkbox"/> Egonkortu diren irakasleei behin betiko destinoa eskaini ahal izateko / Para poder ofrecer destino definitivo al profesorado estabilizado
--